

2004tik ari dira elkarrekin kooperatiba eta WWF

## **AURTEN ERE, WWF-K SUSTATZEN DUEN "PLANETAREN ORDUA" KANPAINAN PARTE HARTUKO DU EROSKI-K**

- Datorren larunbatean, EROSKI-k bat egingo du ingurumenaren alde munduan egiten den itzalaldi sinbolikorik handienarekin; aurten, "Eman planetari itzuli bat" leloarekin
- EROSKI-k eta WWF-k urteak daramatzate elkarrekin lanean ingurumenaren aldeko politikak sustatzeko: arrantzalekuen ustiapen iraunkorra, energia efizientziaren hobekuntza eta kontsumo arduratsua

Elorrio, 2023ko martxoaren 23a.- [EROSKI](#)-k hamahirugarren urtez egingo du bat [WWF](#)-k Nazio Batuen Erakundearen babesarekin antolatzen duen "Planetaren ordua" kanpainarekin. Hala, itzalaldi sinbolikoa egingo du [www.consumer.es](http://www.consumer.es) webgunean; martxan jarraituko du webak, baina argi apalagoarekin, eta, horrez gain, ekimenaren berri emango du webgunean bertan eta sare sozialetan, eta saltoki batzuetan errotuluak itzaliko dituzte, Mundu osoko milioika pertsonak itzaliko dute argia ordubetez (20:30etik 21:30era bitartean, martxoaren 25ean, larunbatearekin, mundua kontzientziatzeko ingurumenaren garrantziaz eta klima aldaketaren kontrako borrokaz.

Aurtengo leloa "Eman planetari itzuli bat" da, eta planetan dagoeneko hasia den klima aldaketaren eta naturaren hondamendiaren aurka egiten ari garen lasterketa bati egiten dio erreferentzia. Helburua da CO<sub>2</sub> emisioak erdira murriztea 2030erako, eta bioaniztasunaren galera geldiaraztea.

*"Aurten ere, EROSKI-k bat egin du WWF-ren ekintza horrekin, zeina munduan ingurumenaren alde egiten den ekimenik handiena bihurtu baita. Kontsumitzaileek gero eta eskakizun handiagoak egiten dituzte iraunkortasun irizpideetan eta EROSKI-n lanean ari gara kontsumo arduratsuaren inguruko eskakizun horiek betetzeko", esan du EROSKIko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martínez Berriochoak.*

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

## Konpromisoa klima aldaketaren aurkako borrokarekin

Klimaren hondamena, habitaten galera eta basa munduaren gainbehera eragiten ari da klima aldaketa; gainera, energiaren prezioak igotzen ari dira; batik bat gasarena, Ukrainako gatazka belikoagatik are gehiago garestitu dena. EROSKI ahaleginak handitu ditu iraunkortasunaren arloan, eta mugarri garrantzitsuenetako bat du berotegi efektuko gasik ez emititzera iristea 2050ean. Europar Batasunak *Elikagai-negozio eta marketin-praktika arduratsuei buruzko jokabide kode* bat du, eta testuinguru horretan sartzen da erronka hori.

EROSKI bere bigarren [Lean & Green](#) izarra eskuratu zuen iaz, 2021eko ekitaldian logistika eta garraio prozesuetan CO<sub>2</sub> emisioak %30 baino gehiago jaisteko helburua lortzeagatik, ekimenak dakarrena baino urtebete lehenago. Zehazki, EROSKI %32 jaitsi ditu emisioak oinarriko urtea den 2015etik hona. 36.000 tona CO<sub>2</sub> baino gehiago igortzea eragotzi du hala.

## Hamabost urtetik gora elkarrekin lanean

EROSKI eta WWF elkarrekin ari dira joan deneko 15 urtean baino gehiagoan, ingurumen politika zenbait aurrera ateratzeko, hala nola arrantzalekuen ustiapen iraunkorra, energia efizientziaren hobekuntza, kontsumo arduratsuagoaren sustapena, arrantza iraunkorraren sustapena, eta jardunbide iraunkor egokikoak diren produktuak EROSKIren marka propioarekin. Horretaz gainera, WWFk kolaboratu egiten du [www.consumer.es](http://www.consumer.es) aldizkarian, bere kanalean ingurumenaren gaineko kontuak argitaratuta, eta abala ematen du elikadura osasungarriari buruz kooperatibak duen programan, [Ekilibrian](#).

Bestalde, WWFk eduki pedagogikoak lantzen dihardu iraunkortasunaren gaineko modulu espezifiko baterako, [EROSKIren Elikadura Eskola](#)ko Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Programaren barruan, Espainia guztiko ikastetxeekin elkarlanean.

---

### EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### EROSKI – PRENTSA BULEGOA

#### CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)